



LURPETIK ATERATZEKO ALTXORRA...
BOKAZIO-PASTORALGINTZARAKO
ZENBAIT IRADOKIZUN



Aurkibidea




HITZAURREA	9
GURE ASMOA...	11
KONFIANTZA ITURRIAK...	13
JAINKOAREN EKIMENAZ FIDATZEN GARA	13
ZENBAIT GAZTEREN BIHOTZ ZABALEZ FIDATZEN GARA	13
EGOERA BERRIETARA EGOKITZEKO LAGUNDIAREN AHALMENAZ FIDATZEN GARA	14
BOKAZIO-PASTORALGINTZA: ZEHAR-ARDATZA ETA BERARIAZKO ZEREGINA	15
PASTORALGINTZA OROREN ARDATZA: BESTEEK AURKI DEZATELA JAINKOAK NON NAHI DITUEN ETA NON AMESTEN DITUEN	15
BOKAZIO-PASTORALGINTZA: BERARIAZKO ZEREGINA	16
LAU GILTZARRI ESANGURATSU	17
a) <i>«Kristau-osteko» gizarte honetan, beste mistika baten alde jokatu</i>	18
b) <i>Ongizate-gizartean, haustura esperientziak lagundu</i>	18
c) <i>Zorion-egarri den gizarteari osotasun bidea eskaini</i>	19
d) <i>Gizarte anitzari, baliozko nortasuna eta gaurkoa aurkeztu</i>	19
GURE BIZITZAN AINTZAT HARTZEKO ZENBAIT ALDERDI	21
AGERIKO IZAERA NEURRITSUA SUSTATU	22
APOSTOLUTZAREN NOLABAITEKO «LASAIERA» AURKITU BERRIRO	22
ENTZUTEKO ETA TOPAKETARAKO KALITATEZKO DENBORAK BERRESRRESKURATU	22
GURE BOKAZIO PARTEKATUAREN POZA LURPETIK ATERA	23
ALTXOR BAT ESKAINTZEKO DUGUN USTE OSOA IZAN	23

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

BEDERATZI PROPOSAMEN PRAKTIKO	25
1. UNIBERTSITATE EDO LANERATZE AROAN DAUDEN GAZTEEN LANA SUSTATU	25
2. GAZTE-PASTORALGINTZAN AUKERA BIDERKATZAILEAK PENTSATU: PROBINTZIARTEKO TALDE SORTZAILEA	25
3. BOKAZIO-DIZERNIMENDURAKO PROBINTZIARTEKO ESPERIENTZIAK ANTOLATU	26
4. GOGO-JARDUNAK ESKAINTZEKO ETA EGOKITZEKO AHALEGINEAN JARRAITU	26
5. «LAGUNDUTAKO» BOLUNTARIOTZAK ETA BESTE ZENBAIT HAUSTURA- ESPERIENTZIA INDARTU	26
6. BOKAZIO-PASTORALGINTZAN LANKIDETZA «PRIBILEGIATUAK» ZAINDU .	27
7. JESUITA-GUNE «LASAI ETA POZGARRIAK» SORTU	27
8. HEDABIDEETAN ETA, BEREZIKI, INTERNETEN PRESENTE EGOTEA	28
9. BOKAZIOEN ALDEKO PUBLIZITATE KANPAINAK	28
ETA HAMARGARRENA: «LEHEN BITARTEKOA ETA NEU- RRITSUENA» (Konst. 812)	29
ERANSKINA: AITA JENERALAREN GUTUNA LAGUNDI OSOARI, «BOKAZIOEN SUSTAPENAZ», 1997eko IRAILAREN 29an	31

*Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatua dagoen
altxorrekin bezala gertatzen da. Norbaitek aurkitzen
duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan,
dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du
(Mt 13, 44)*

*Baina altxor baliotsu hau buztinezko ontzian daramagu,
garbi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoarengandik
datorrela eta ez guregandik
(2 Ko 4, 7)*



HITZAURREA

Anaia maiteok:

Urte berri honen hasieran, jesuita talde batek Probintziaburuaren aginduz idatzi duen «*Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun*» idatziari laguntzeko, lerro batzuk idatzi dizkizuet. Zeregin horri ordu asko eman dizkiote baina batez ere berori idazten jarri dute ilusio handia. Komunitateei zuzendua dago baina baita partikularki jesuita bakoitzari ere, denok baitaramagu lehenbailehen lurpetik atera behar dugun «*alxor ezkutu bana*» eta denok baikaude bokazioa «*proposatzera*» deituak gure bizitza eta gure otoitza, gure lana eta pozaren bidez Lagundiaren Gorputz honetan Betiereko Erregeari jarraitzeko deiaz saritu gaituelako.

Beraz, bada, gutako bakoitzaren eta komunitatearen bizitzari, misioari eta gure jokamoldeari eragiten dion txostena da. Gazte-pastoralgintzaren eta nobizio-aurreko garaiaren tartekoa da eta 2002ko azaroan argitaratu zen «*Gazteriari buruzko inazioaren pastoralaren erronka eta helburuak*» txostenaren jarraipena izan nahi luke, izan ere inaziar pastortza guztiek Jaunarekin, dei eta erantzun bidezko, topaketa pertsonala izatera bideratu behar baitute. Gure espiritualtasunak eta Gogo-jardunetan laguntzeko eskarmentuak erakutsi digute, ebanjelizatzearen azken helburua Jainkoak non nahi eta amesten gaituen bakoitzak aurkitzea dela.

Agindu-orriak baino inspiraziokoak dira gehiago, itxaropena eragiten dutenak, bokazioaren dohaina ematen duen Jainkoaren ekimenean, gonbidapen hau jasotzeko gazte eskuzabalen bihotzetan eta gure garaiaren premiei erantzuteko gure Lagundiaren ahalmenean finkatzen baitute zeregin honetarako konfiantza. Egungo errealitatetik abiatzen dira, norberaren eta inguruaren zailtasunak ezkutatu gabe, baina buztinezko ontzietan eman zaigun alxor honen gaitasuna aintzat hartzen dute.

Aita Jeneralak dioen bezala «*gure bokazioa eta misioa era garbian, agerian eta anbiguotasunik gabe, gorputz apostoliko gisa*» bizi behar baitugu, bokazioak eragiteko ahalmen nabarmena beren baitan

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

dutelako. Ez dira hausnarketa soilean geratzen, erronka bideragarri eta beharrezkotzat adierazitako proposamen zehatzetara jaisten baizik. Azkenak, denok mahastiko Jaunari otoitz fidakorra egitera gonbidatzen gaitu, langileak bidal ditzan, Lagundi hau «*zaindu eta aurrera eraman dezan*» bera gehiago zerbitzatu eta goresteko.

Borondate huts den Jainkoak urteberri honetan bere bedeinkapenak eman diezazkigula guztioi.

Anaitasunez,

ELIAS ROYON, S.J.

Espainiako Probintziaburua

Madriren, 2005eko Urtarrilaren 1ean

Jainkoaren Ama Mariaren Festaburuan

GURE ASMOA...

Altxorra, dena saltzera bultzatzen duen poza, hain gauza baliotsua daraman buztin hauskorra... eta buztin hori gardena izateko gogoia: zalantzarik gabe gure bizia irudi hauetan ikus dezakegu. Zenbait hilabeteetan zehar, Espainiako probintzia guztietako hainbat jesuitak osaturiko talde bat bokazio-pastoralgintzaz hausnarketa egiteko bildu gara eta irudi horiexek lagundu izan digute gure bizia eta gure misioa berriro irakurtzen. Azken urteetako egoera aztertu ondoren, zenbait ondorio zuekin partekatzen ausartu gara.

«Zuekin» honek ahal diren denak partaide izatea nahi luke, idatzi honen bidez zuek guztiontzat, nola misioan gurekin lankide zaretenak hala Lagundirako bokazioa gure mundua eta gure Elizarentzat zer baliotsutzat duzuenontzat irekitako proposamena egin nahi dugu. Alabaina, ezin dugu ahaztu hemengo Lagundiarentzat eta orain jesuitok (lankidetzaz bereziren bat salbu) egindako hausnarketa dela. Beraz, denok partaide egin asmoz, proposamenak soilik jesuitontzat eta gure komunitate, erakunde eta probintzientzat¹ egiten ausartzen gara.

Txosten labur eta berezitua eskaini nahi genuke. Ez dugu egiten dugun guztia ezta mundu idealean egin daitekeen guztia ere esan nahi. Egoera errealetik abiatu nahi dugu eta gure «garairako eta hemen» esanguratsu eta premiazkoena iruditzen zaiguna bereizten ahaleginduko gara. Gainera, guztiok animatu eta, gure indar guztiz, ikuspegi errudun edo zorigaitzekoetatik urrunduta nahi zaituztegu.

¹ Argi dagoena ez dugu berriro aipatuko: jesuita oro dela «bokazio sustatzaile» bere otoitz, bere lan, bere bizitza eta jarraitzaileak behar dituen gure misioaren usterik sendoenarekin. Jesuita gazteenek –ez beraiek bakarrik–, adin hurbiltasunagatik, zeregin berezia dute sustapen honetan, gazte zorionsu eta jesuita gaur egun izan daitekeela erakutsiz. Beste batzuk erantzukizun berezia dute gazteekin lan egiteko izendatuak daudelako edo bokazio-sustapenerako osorik edo zati batean liberatuak daudelako. Bokazio-sustatzaile da baita ere, norbanakoez gain, komunitate eta apostolutza obra bakoitza. Gaur gainera, besteek Jainkoak beraiek zertan «nahi eta amesten dituen» aurki dezaten, Jesusen Lagundi honetan batzuk amesten jarraitzen duten uste osoz, apaltasunez, gure misioa gizon-emakume laikoekin, beste apaizekin, lekaime eta lekaideekin partekatuz, elkarlanean ari gara.

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

Azken batean, bokazio-sustapenean animatuago, indartuago eta arduratsuago sentitzeko hausnarketa bat eskaini nahi dugu, misioaren etorkizuna delako eta gure bide honek giza eta kristau betetasunera garamatzan uste osoa dugulako. Beste bide batzuk iradoki nahi ditugu, beste presentzia eta izaera batzuk, beste egoteko modu batzuk... Gazteei, Jesusen mezua zer baliagarri eta esanguratsu gisa uler dezaten eta Ebanjelioaren bizi-aukerak egin ditzaten ongi lagundu nahi diegu; Jesusen Lagundiaren bizi-aukera da horietako bat. Antzematen ez ditugun eta sakontasunik handinez azaltzen diren unean edo lekuan ez gaudelako galtzen diren bokazioez arduratzen gara.

Hauxe azpimarratu nahi dugu: uste osoa dugu Jainkoak beren bizia Erreinuaren alde eman dezaten gazte askori deitzen jarraitzen duela oraindik eta inguruko zenbait «zarataren» ondorioz ezin dutela dei hori entzun. Horregatik, bada, bokazio-pastoralgintzari eman behar diogun presa eta garrantzia, Lagundiarentzako bokazio bilaketa ez baita guretzat, Kristoarentzat eta Erreinuarentzat baizik... eta gure garaiko gizon-emakumeei gehiago eta hobeto erantzuteko. Zeregin honetan, norbere bizitzaren lekukotza emanez, guztiok gaude sarturik, altxor ezkutua aurkitu izanaren alaitasuna, Jauna aurkitu izanaren eta Jesusen Lagundi honetan «*gehiago maitatu eta jarraitzeko*» geure lekua aurkitu izanaren zoriona islatzea nahi dugun lekukotza.

KONFIANTZA ITURRIAK...

Egia da, sarri entzuten ditugu nolabait gutxiespen-zentzua duten esaera topikoak, esanez, gaur eguneko gazteei belaunaldi izaerari dagozkion berezitasun sail batek eta beren zenbait izateko eta egoteko erak ez dietela jesuita izateko aukeraz pentsatzen laguntzen. Lagundia-
ren eta gaur eguneko erronkei erantzuteko bere gaitasunak ezkortasunez bete gaitzake baita ere. Hala ere, oinarrizko hiru konfiantza iturri azaldu nahi ditugu:

JAINKOAREN EKIMENAZ FIDATZEN GARA

Ekimena daramana Jainkoa da. Bera da gonbidapena luzatu diguna eta Bere misioan lankide izango dituen pertsoneri deitzen jarraituko duen itxaropen osoa jarri behar dugu Beregan. Azken batean, ez gabiltza gure obra, lan eta asmoetarako «eskulan merkearen» bila, «*Kristoren misio-zerbitzarien*» bila, bere obra, lan eta asmoetarako «langileen» bila gabiltza, hain zuzen ere. Berarekin fidatzen jarraitzen dugu eta «bere» mahastira langileak bidal ditzala eskatzen.

ZENBAIT GAZTEREN BIHOTZ ZABALEZ FIDATZEN GARA

Jainkoaren hitza giza bihotz guztiek jaso dezaketela uste dugu eta, duela zenbait urtetako gazteen aldean berezitasun desberdinak izan arren, gaur egunekoek ere badute sentikortasunik, biziera, kezka eta baliarik mezu horiek jasotzeko eta, benetan, tankera berriz berenganatzen dituzte. Uste on hau baieztatu eta Hitza jasotzeko era berri hauek ikusteko argitasuna eskatzea giltzarria da bokazio-sustapenean.

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

EGOERA BERRIETARA EGOKITZEKO LAGUNDIAREN AHALMENAZ FIDATZEN GARA

Gure apostolutzako bereizkuntza eta malgutasun tradizioa da beste konfiantza iturri bat. Badakigu gure karismaren zati dela eta, Espirituarena denez, behin eta berriro gaitutuko dituela gure nagikeria eta geraldak. Azkenaldian, aldaketak sumatzen ditugu, bokazio ikuspegiak gero eta berantiaragoak dira eta ohiko ez diren plataforma eta lekuetatik datoz. Pertsona eta erakunde gisa garai eta leku berri hauetan Jainkoak deitutakoei igarri eta laguntzeko presente egoten jakingo dugun uste osoa dugu.



BOKAZIO-PASTORALGINTZA: ZEHAR-ARDATZA ETA BERARIAZKO ZEREGINA

PASTORALGINTZA OROREN ARDATZA: BESTEK AURKI DEZATELA JAINKOAK
NON NAHI DITUEN ETA NON AMESTEN DITUEN

Ebanjelizatze zereginak betidanik, eta gehiago Ignazioren ikuspe-
gitik, bokazio marka du. Jainkoak gutako bakoitzari, Jesusi jarraitza
eta bakoitzari munduan eta Elizan era desberdinean bizitzeko eta egote-
ko deitzen digun ustean oinarritzen gara. Norbere bokazioaren bilaketa
hau beti izan da, eta hala izaten jarraitu behar du (kementsuago agian),
gure pastoral zeregina zeharkatzen duen ardatza. Gauza desberdin as-
kotan izan gaitezke trebe baina jesuitok «*Jainkoaren borondatea bila-
tzen eta aurkitzen*» trebatzen gara, lehenik bakoitzaren bizitzan eta ond-
oren besteei bitartekoak eskainiz, haiek ere, Jainkoak non nahi dituen
eta non amesten dituen «*bilatu eta aurki*» dezaten.

Beraz, bada, Ebanjelioaren berri ona zabaltzeko era guztiak boka-
ziozkoak direla ulertzen dugu. Kristau izatea, Jesusen jarraitzaile izate-
ko bokazioa bada, pastoralgintza orok, gazteenak bereziki, ezinbesteko
bokazio-osagaia izan behar du: bizitza Jainkoaren deiari emandako
erantzuna dela ulertzea. Beraz, pastoralgintza horrek, hasieran gutxie-
nez, dei hori entzuteko ahalmena sortu eta garatzera gidatua egon behar
du. Hortik dator, bokazio-pastoralgintzarako, haurtzaro eta nerabezaro-
an egindako bideak duen garrantzia. Kristauak, hortixe abiaturik presta-
tu beharko du bere burua dizernimendurako eta bere bizitza bokazio gi-
sa ulertuz aukera pertsonalerako.

Aspalditik dugu, gure probintzia guztietan honen guztiaren era
zehatzagoa jasotzen duen txostena: «**Gazteriari buruzko inazioren
pastoralaren erronka eta helburuak**»². Gazte-pastoralgintza gaur
egungo garaira egokituago lantzeko lan-tresna da. Agiri hori ez zen
egin, ezin bestela izan, bokazio-zereginetik at. Aipatu prozesu guztiak

² *Gazteriari buruzko inazioren pastoralaren erronka eta helburuak* (GBI-
PEH), Madril: Jesusen Lagundiko Espainiako Probintzia, 2002 (urte berean euskara
eta katalanezko itzulpenak ere argitaratu ziren).

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

deia eta erantzunaren topaketara darama. Sarrerako zatian azaltzen da argi eta garbi ikuspegi hau:

«Bilatzen dugun pastoralgintzak oso koherentea, antropologi aldetik esanguratsua eta, Ignazioren Espiritualtasunaren arabera, Jainkoaren ezagutza eta esperientzia argi eta nabarmena izango dituen behar du. Antropologi eta teologi arloan aldi berean sakontzea esan nahi du, kristau bizitza dei baten erantzun gisa ulertuz (bokazioa)»³.

«Fede bizitza: honek hartzaileen fede-hazkuntza, nola maila pertsonalean hala taldean edo komunitatean lagundu, aintzat hartu eta zaintzen du. Bizipena eta aukera pertsonala den fedea eta kristau-bizitza bokazio gisa ulertzea eskatzen duena»⁴.

Agiri hau oinarri eta abiapuntutzat hartuz, probintzietan onartu eta bete beharko dela jakinik, eta gaurko gazteek benetako aukera gisa Erlijio Bizitzari heltzeko dituzten zailtasunak ikusiz, hemen berariazko zerbait eskaini nahi genuke. Gure nahia zuek Jesusen Jainkoa aurkezten jarrai dezazuen animatzea da, atzo bezala gaur, bizitzako egoera desberdinetan, tartean Jesusen Lagundiarenean, «Berarekin egon eta bidalia izateko» deitzen eta gonbita egiten jarraitzen baitu.

BOKAZIO-PASTORALGINTZA: BERARIAZKO ZEREGINA

Une honetan, gazteekin egindako lan-ildo berrien jarraipen gisa, bokazio-pastoralgintzaren berariazko zeregina dena azaldu nahi dugu. Gure pastoral antolakuntzetan, arbitrarioki bada ere, lan honek gazte-pastoralgintza eta nobizio-aurrekoaren sarreraren bitartean du bere lekua. Hautazko mugaketa da, ezinezkoa baita jakina denez, Jainkoak bokazioak ereiteko aukeratzen duen une eta bitartekoei –gehienetan oso goiz⁵– edo norbaitek onartu ahal izateari –nahiko berandu gaur egun– mugak jartzea. Dena den, gazte-pastoralgintza eta nobizio-aurrekoaren tarte «birtual» honetan kokatzen dugu, baliagarri zaigulako, berariazko bokazio sustapenaren zeregin hau.

Bokazio oro (erlijioso, laiko, zerbitzuzko) aberastasuna da Elizarentzat eta, beraz, gure bokazio-pastoralgintzak Elizako bokazio posible guztiak hartzen ditu bere baitan.

³ GBIPEH, 15

⁴ GBIPEH, 16

⁵ Lagundian sartu berri direnen oroimenean, bokazioaren lehen arrastoak, nerabazaroko lehen urteetan kokatzen dira. Ezin dugu, bada, (haur eta nerabezaroan) «ereiteko» pastoralgintzak duen garrantzia aipatu gabe utzi.

Bokazio-pastoral gintza: zehar-ardatza eta berariazko zeregina

Hala ere, jakinean gaude erantzukizun berezia dugula bokazioak Jesusen Lagundiaren erlijio bizitza erara, sustatzen, igartzen eta laguntzen, Jainkoak batzuei Jesusen Lagundi honetara deitzen jarraitzen duela ziur baikaude.

Zer esan nahi du orain arte esandakoak? Bada, gazte pastoralgintzan berariaz sarturik dauden eragile guztiek, nola jesuitek hala laikoek, eta Lagundiaren bizitzeko era ezagutzera emateko ardura duten guztiek, kasu honetan jesuitak batez ere, zeregin honetan bakoitzaren, komunitatearen eta erakunde mailako konpromisoa geureganatu behar dugula.

Konpromiso honek bere baitan hartzen du, kristau-bokazio guztien hitzaren esanahirik zabalenetik hasi –horretarako bizitzaren zentzu bilaketa prozesuak sustatuz eta fedea sakontzeko pertsona nahiz komunitate mailako prozesuak indartuz–, eta Jesusen Lagundiaren bizi-aukera proposatu eta animatzeko ahalegin partikularreraino. Honek jesuitoi zera eskatzen digu gure bizitzeko erak bezala gure apostolutza aukeren garrantzia pertsonal, sozial nahiz elizakoak gardentasunez erakusten jarraitu behar dugula.

Bereizkuntza prozesu hauetan laguntzeak hautagai posibleei hurbiletik antzematen, elkarrizketa espiritual patxadatsu eta sakonak egiten eta gure komunitateak, benetako bilaketan dabiltzanei, irekitzen lagunduko digu.

Hausnarketa honen bidez, **bokazio-pastoralgintzan gure berariazko zeregina da, gazteak bere bizitza modu serioan hartzeko, benetan, loturarik gabe, Jainkoaren aurrean eta Berari eta munduari Jesusen Lagundiaren bidez hitz eman ahal izateko, hausnarketak, egintzak eta esperientziak asmatu, sustatu eta eskaintzea.**

LAU GILTZARRI ESANGURATSU

Aipatu hausnarketa, egintza eta esperientziak azaltzerakoan, gure garai eta tokirako lau giltzarri gomutatzen ditugu:

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

a) *«Kristau-osteko» gizarte honetan, beste mistika baten alde jokatu*

XXI. mendean gaude, Karl Rahner-ek, kristauak mistikoak izango zirela ala ez zirela izango esan zuen hartantxe. Iragarpen hau bete egin da. Dagoeneko ez dugu kristaurik –eta gutxiago jesuitarik– soziologi edo talde-prozesuetatik sortzerik espero. Eskura ditugun bitarteko eta sormen guztiekin beste mistika honen aldeko gure apustua giltzarria da gure garairako. Barnetasun heziketarako, Jainkoarekin topaketa pertsonalen esperientziak errazteko, beste batzuei norbere bizia Jainkoarenetik irakurtzen laguntzeko, eta, bereziki, Gogo-jardunen aberastasuna partekatzeko egiten den guztia bide honetan doa.

Azken urteetan asko indartu da Ignazioren espiritualtasunarekiko gure estimua eta partekatze-ahaleginak ugariak izan dira jende gehiagorekin. Gure ikastetxeetako Ignazioren karismaren hazkundetik hasi eta Gogo-jardunak eguneroko bizitza edo adin, kultura eta azpikultura desberdinen era anitzetara egokitzeko egindako ahalegin baliotsuetaraino asko eta ondo egin da. Bide hau, gure egoerak uzten digun neurrian, gure bitarteko eta sormen guztiarekin bultzatu beharko genuke.

b) *Ongizate-gizartean, haustura-esperientziak lagundu*

Egungo gazteen eguneroko bizitza ongizateak eta, beste ikusmolde batzuetara ireki gabe, halako «bide» jakin bati lasai asko jarraitzeak markatzen dutela dirudi. Azken urteetan Lagundian sartutako askok haustura-esperientziak egin behar izan dituzte –batzutan, atzerrian sei hilabetez ikastea baino ez– beren «bide» horretatik irten eta bizitza, fedetik eta eskuzabaltasun eran, ez norbere ongizateetik, ikusten hasteko. Haustura-esperientzia hauek eskaintzeko eta laguntzeko egin dezakegun guztia oso onuragarria dela dirudi kristau eta jesuita bokazioak aurkitzeko. Batez ere baztertuen munduarekin izandako harremanak Jesusen Jainkoarekin topo egiten eta bizitza esker on eta eskuzabaltasun eran ulertzen laguntzen du.

Jainkoa, pertsona askoren kasuan, haustura-esperientzia hauetaz baliatu da –boluntariotza, hirugarren mundua, atzerriko ikasketak– bere deia entzunarazteko. Gure testuinguruan badirudi esperientzia hauen beharra dagoela munduari alderantzitik begiratzeko, itsasuntziak erre ahal izateko, beste bizimodu erabat posible dela norbere larruan nabaritzeko, horrek erabaki bat eskatzen duela onartzeko, hartzea merezi duen arriskua dela norbere habiatik irteteko. Altxorra aurkitu eta dena saltzera bultzatzen duen alaitasuna bihotz barrenean sentitzeko, bizitzara «konektaturik» egoten ikastea eskatzen du eta ez mugikorra, Internet,

Bokazio-pastoral gintza: zehar-ardatza eta berariazko zeregina

Messenger edo aurikularretara bakarrik. Gazte batentzat zaila da gure gizartean kristau izatea, ezer ez du alde, ezerk ez du animatzen, ez laguntzen ere; basamortura irten beharra dauka Jainkoak hitz egin diezaion bere bihotzari eta han jesuita izatea bezalako aukera bat posible eta desiragarri dela aurkitu.

c) Zorion-egarri den gizarteari osotasun bidea eskaini

Altxorraren parabola dago idatzi honen hasieran zeren gure garairako bokazio-irudi egokia dela iruditu baitzaigu. Norbait duen guztia saltzera baldin badoa, zerbait oso baliotsua aurkitu duen alaitasun neurrigabeak bultzaturik dago eta erabateko eskuzabaltasuna eskatzen zaio berorretaz jabetu ahal izateko. Erljio-bokazioa eta gure zin-hitzak bizitzaren osotasun dinamika honetan soilik ulertu eta onartu behar dira. Gure jesuita bizitza beti proposatu behar genuke betetasunerako, bizitzarako eta baita atseginerako bide bezala ere.

Altxorra eta erosi ezin den alaitasuna, Berri Ona... eta gure irudimenak sor ditzakeen hitz eta ikur guztiak, ezinbestekoak dira gure garairako bokazio-pastoralgintzan bide hau betetasunerako eta Bizirako, hizki handiz, bide bezala proposatzeko.

d) Gizarte anitzari, baliozko nortasuna eta gaurkoa aurkeztu

«Gazte jendeak ezagutu eta maitatzen duena bakarrik aukera dezake. Jesuita eta komunitate orok ahalegin guztia egin behar du, Jainkoak deitzen ditueni, Lagundia nor eta zer garen ezagutu eta estimatzeko eran aurkezteko»⁶. Gure eredia eta gure ametsa baliozkoak dira hemen eta orain. Ez dugu onartzen, antzinako erlikia gisa hartzen gaituen edo beste kultura batzuetarako balio duela baina honetarako ez, dioen iritzi ezarririk. Geure aurkezteko eran hemen eta orain egiten dugun eta garenarekiko harro puntua berreskuratu behar dugu. Tentazioa dela iruditzen zaigu eredutzat jesuita «exotiko» edo heroikoa aurkeztea eta gutako askoren lan «arrunt» eta egunerokoaren zentzua ez aldarrikatzea. Itxuraz ez-heroiko diren eguneroko lan eta bizitza horietan daramagu gure altxorra buztin hauskorrezko ontzietan izan arren. Bizitza horietan dago Jesusen Lagundiak lortu nahi duen amets eta eredia, bera bizi den errealtatean kokaturik, argi-ilunez, erronka eta ahalginez, proiektu bikain eta errealtate hauskorrez beterik.

⁶ 34. K.O., 10. txo., 2. zenb.

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

Hemen aurkezten zaigu, ageriko izan eta kristau eta erlijio bizitzaren irudia antzinako edo beste kultura «primitiboago» batzuetakoa den ustea, borrokatzeko erronka. Galdera asko dira beste aldarte bat eta, harremanetan gauden pertsonen benetan ezagutzen ote gaituzten, galdetzeko ausardia eskatzen dutenak. Garrantzitsua da gu, pertsona, komunitate eta instituzio gisa nortasun jakin batekin eta gizarte anitz baten «merkatura» eskainirik ezagutu gaitzaten. Gehiago eta hobeto ezagutzera emateko bideak bilatu egin behar ditugu. Ezagutzera emate hau laguntzen duen eta, jesuitekin banaka nahiz gure komunitateekin, topo egitea eta hurbiltasuna errazten duen guztia bokazio-pastoralgintzarako oso garrantzitsua da.



GURE BIZITZAN AINTZAT HARTZEKO ZENBAIT ALDERDI...

Aita Jeneralak esaten digu: «*Jakitun izan behar dugu guztiok bokazioak sustatzeko dugun ahalmen eta erantzukizunaz, gure bokazioa eta misioa era garbian, agerian eta anbiguotasunik gabe, gorputz apostoliko gisa bizi badugu eta ez banakako apostolu gisa*»⁷. Honek badu gure egoerarako esanahia.

Lagundirako bokaziorik eza ez da gure bokazioarekiko zintzotasunean haztera bultzatzen gaituen motibazioa «Kristoren misioko zerbitzari» zintzoagoak izatekoa baizik. Tentazioa da, eta ez beti saihestua, behar bezain onak ez garelako jesuita berririk ez datorrela uste izatea. Bekatariak gara eta, hala ere, Lagunditxo honetan Jesusi jarraitzera deituak. Gure Jainkoaren banakako nahiz partekatutako esperientziak etengabeko konbertsiora deitzen gaitu. Jesuitok dinamika honetantxe bizi gara beti. Hauxe da beti bizi dugun dinamika. Norbere bizitzaren edo komunitatearen errudun eta katastrofe ikuspegiek ez dute ezer laguntzen bokazio-sustapenean, eta arrazoi gabeak dira gainera. Horregatik, tentazio horretatik ihes egiteko, beren bizia egunero ematen duten hainbat jesuitaren eskuzabaltasuna aitortuz eta berriro, bokazio-pastoralgintzako txosten bat ez dela leku egokia jesuita batek gaur nola bizi behar duen edo bere komunitate bizitza zein izan behar duen esateko gogoratu, idazten dugu.

Oinarriko jarrera honen ondoan, gure bizitzako zein alderdik, agian gaurko zenbait egoeraren mehatxupear daudenak, izan behar duten indartuak –ez pertsonalki bakarrik baita erakunde mailan ere– antzematen saiatu gara, Lagundiko bizitza hau bizitza zoriontsua eta besteentzat zentzuduna den gure ziurtasuna, era garbiagoan nabarmendu ahal izateko. Gehiago ere izan daitezke baina guk bost hautatu ditugu premiazko eta esanguratsuenak iritzirik:

- Ageriko izaera neurritsua sustatu.
- Apostolutzaren nolabaiteko «lasaiera» aurkitu berriro.

⁷ Aita Jeneralaren gutuna Lagundi osoari, «*Bokazioen sustapenaz*»; 1997eko Irailaren 29an (ikus eranskina).

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

- Entzuteko eta topaketarako kalitatezko denborak berreskuratu.
- Gure bokazio partekatuaren poza lurpetik atera.
- Altxor bat eskaintzeko dugun uste osoa izan.

AGERIKO IZAERA NEURRITSUA SUSTATU

Elizan eta gizartean beste presentzia era apal batzuen bilaketa, klerikalismo gaizki ulertu eta kontzilio aurrekoen aldean, lehentasunezkoa zen garaietatik gatoz. Testuinguru honetan –eta gure inguruan bereziki– jesuitok ikusezin izaera eta berdintasuna azpimarratzearen aukera egin genuen orean legami izateko bokazioz. Aukera honen ondorioz izandako ebanjelio bultzadaren lorpenak gutxietsi gabe, gaur egun beste garai batean bizi gara eta beste egoteko era batzuk eskatzen zaizkigu. Badirudi gure berariazko nortasuna agerikoago izan daitekeela nagusikeria edo nabarmenkeria izan gabe. Gaur egun, jasanbera eta anitza izateak ez du esanahi norbere nortasuna urtu behar dugunik, eta gizarteak ere ez digu urtzeko eskatzen. Lagundiaren tradizioz onenean, banakako, komunitateko eta erakundeetako ageriko izaera honek «neurritsua» izan behar du: berezitua, soila eta egiazkoa (ulertuko duzuen ez dugu nahi ez antzinako denbora-minik ez publizitate gezurtirik).

APOSTOLUTZAREN NOLABAITEKO «LASAIERA» AURKITU BERRIRO

«Lasaiera» hau ez da erraza jesuita kopurua urritzen ari den garai honetan eta ez da intentzio onez bakarrik etorriko. Aurkitzekotan, beste biziera eta adierazpide batzuk irudikatu beharko ditugu gure bokazioa ez dela gainez eragiten digun eta etengabe muga-mugan gauzkan lan bat soilik adierazteko. Misio partekatua dugu, erortzera doan erai-kuntza bati eusteko lan etsia baino askoz gehiago dena, denon bokazioa. Honela bada, irudimenez eta arriskatuz bakarrik lor ditzakegu, talde-lan benetakoa eta misio partekatu agerikoa izango duten inguru lasaiak. Gure jesuita bokazioa berezkotasun eta freskotasun apur batekin bizitzeko premiazkoa da inguru hauek bilatu edo sortzea.

ENTZUTEKO ETA TOPAKETARAKO KALITATEZKO DENBORAK BERRESKURATU

Bokazio-pastoralgintza, oro har, pertsonatik pertsonara izaten da; topaketarako eta entzunaldi lasairako denbora eskatzen du. Inoiz, bana-

Gure bizitzan aintzat hartzeko zenbait alderdi

kako pastoral-lan hau zeregin «lanorduz kanpoko» bilakatzen da, beteegi dagoen agendan bortxaz sartua. Irudimena landu beharko da, berriro, denbora eta pertsonak nola libratu erabakitzeko, harrera modu hori eta kalitatezko entzunaldia eskaini ahal izan dezaten, horrela beste batzuei Jainkoaren borondatea «bilatu eta aurkitzen» laguntzeko beren bizitzetan.




GURE BOKAZIO PARTEKATUAREN POZA LURPETIK ATERA

Lurpetik atera eta ez asmatu: zeren bokazio hau bizi dugunok badakigu, sakon-sakonean, pozez eta eskerronez gaudela Jaunak deitu gaituelako. Lagundi honetara «deituak eta onartuak» izana poz eta oparitzat hartzen dugu. Baina agian poz horri palakada lur ugari erori zaio gainera: lan gehiegiaren eta presaren nekeak utzitako harea, huskeria sozialaren hautsa, elizaren onespentik ezaren hartxintxarra, zahartzearen eta indar ahultzearen lur lehorra... Lur asko behar bada, baina, Jaunaren laguntzaz bakoitzaren eta komunitatearen kemenak sustatuz, lurpetik atera behar ditugun poza eta alaitasuna handiago dira.

ALTXOR BAT ESKAINTZEKO DUGUN USTE OSOA IZAN

Eskaintzeko balio handiko zerbait dugu. Gure bizitzeko era munduarentzat eta Elizarentzat baliotsua dela jakinarazteko erronka dugu. Aurre egin behar diogu, ez gizatasun eta hauskortasunean –begien bistakoa dena, bestalde– «besteak bezalakoak» garela adierazteko erronkari soilik, gure bokazioaren berezitasun eta alde, Jainkoari eta munduari emandako baliozko erantzun zintzo bezala baizik. Uste honek ez du norbere barruko eta pertsonala izan behar bakarrik, lehenengo iruzkinean esan dugun «ageriko izaera neurritsu» horren bidez jendaurrean adierazia baizik.

Azken batean, jesuita oro, gure misioan partaide direnekin batera, Jesusen Lagundiaren bokazioen sustatzaile gara, erabakitasunez onartzen dugun bizitzeko era da-eta gure garaian eta mundu honetan Kristoren misioa zerbitzatzeko bide egokitzat duguna. Zalantzarik gabe, bokazioa Jainkoaren dohaina da, gure otoi-tza eta Bere borondatean fidatzea eskatzen duena, baina Jainkoa ere bitartekoez baliatzen da eta bizitzeko era hau, Ebanjelioa bizi eta zabaltzen duten pertsona, komunitate eta erakunde bidez, erakargarri egiten du. Sustapen hau agerikoago izanez, «lasaiera» gehiagoz gure misioa biziz, pertsonarteko harremanari arreta handiagoa jarri eta –gutxitzen joan eta arazoak izan arren– pozik gaudela eta altxor bat eskaintzeko dugun uste osoa erakutsiz egiten dela iradokitzen dugu.



BEDERATZI PROPOSAMEN PRAKTIKO

Aurrez esandako guztiak ondorio praktikoak ditu gutako bakoitzaren, komunitatearen eta erakundearen bizitzan. Batzuk begien bistakoak dira edo esanak daude; gauza asko ahaleginez eta arrakastaz egingen dira edo egin izan dira azken urteetan. Hemen lan eta lorpen horiek guztiak aitortzen ditugu, baina garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eta gure esku leudekeen beste erronka batzuk aipatu nahi ditugu. Bederatzi proposamen hautatu ditugu –eta estra bat «dekalogo» osatzeko–, egingarriak eta beharrezkoak gure ustez.

1. UNIBERTSITATE ETA LANERATZE AROAN DAUDEN GAZTEEN LANA SUSTATU

Gaur egun erabakirik garrantzitsuenak hartzen diren bizitzako aro honetan laguntzeak duen garrantzia azpimarratzen dugu. Jesusen Lagundiko nobizio garaian sarrera eskatzen dutenen adina beti goraka joan da (2003-2004 urteko 13 nobizioen bataz besteko adina 28 urtekoa da). Lagundiak gazteen unibertsitate eta laneratze garaiko lanerako jesuita gehiago behar lituzke. Errealitate honetara hurbiltzeko beste era batzuk probatu beharra dago. Ez daukagu argi zehatz zer izango diren «beste era» horiek, baina bada nahiko seinale laurogeiko hamarkadan unibertsitate taldeekin pastoral arrakasta handia izan zuen eredu ordezkatu (edo elkarrekin bizi) beharra dagoela. Nahiko seinale bada eredu irekiagoa, osagai malguagoekin, ez hain zorrotzak agian baina kalitatezkoak eta esanguratsuak izango direnak, adin tarte honetako gazteek eskatzen duten eta eskain dezaketen eredura gehiago egokitzen dela sumatzeko.

2. GAZTE-PASTORALGINTZAN AUKERA BIDERKATZAILEAK PENTSATU: PROBINTZIARTEKO TALDE SORTZAILEA

Segurutzat jotzen dugu haur, nerabe eta gazte pastoralgintzari eskainirik dagoen «*Gazteriari buruzko inazioren pastoralaren erron-*

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

ka eta helburuak» txostenaren ezinbesteko zeregin guztia. Ezagutzen dugu alor honetan lan egiten duten guztien gainkarga. Orri berriak, esparru-agiriak eta proiektuak eszeptizismoz edo zama bat gehiagotzat har daitezkeela. Eguneroko lanaren zama, gainera, ahalmen sortzaileak itotzen ari daiteke. Zeregin honetan aritzen direnei laguntzeko era asmatu behar dugula uste dugu –gehiago zamatu ordez– eta, aldi berean, duten sormen ahalmena biderkatu. Bide bat, probintzia guztietako jesuitaz osaturiko taldea liberatzea izan daiteke, materialak eskaini eta esperientzia eta eredu berriak garatu ahal izateko. Argitarapen baten, web orriaren edo gure unibertsitate-ikastetxeren baten laguntza-aren inguruan antola daitezke.

3. BOKAZIO-DIZERNIMENDURAKO PROBINTZIARTEKO ESPERIENZIAK ANTOLATU

Gure probintzietan egin izan diren udako bokazio-esperientziak ebaluatuz eta gure inguruko beste batzuetan emaitza onekin egiten direnen berri emanez, esperientzia erakargarri eta berriak eskaintzen ahalegindu gaitezke. Agian, «mistika berria» eta «haustura», bi giltzarriak bateratu beharko lituzkete. Norengatik, nola, noiz eta non galderak erantzuteko geldituko lirатеke.

4. GOGO-JARDUNAK ESKAINTZEKO ETA EGOKITZEKO AHALEGINEAN JARRAITU

Arestian esan bezala, azken urteetan gure Ignazioaren espiritualtasun-tradizioaren estimua hazi egin zaigu eta partekatzeko ahalegin ugariago egin. «Mistika berriaren» premian gauden garai honetan, Gogojardunak gehiago eman eta egoera desberdinetara hobeto egokitzeko ahalegin guztiak gure baliabideek uzten dizkiguten bitarteko (material eta pertsonal) guztiekin eta sormen guztiekin indartu beharko lirатеke.

5. «LAGUNDUTAKO» BOLUNTARIOTZAK ETA BESTE ZENBAIT HAUSTURA- ESPERIENTZIA INDARTU

Hauptura-esperientzien garrantzia behar beste azpimarratuta utzi dugu. Bide honek Pedro Arrupe Boluntariotza (PABOL) edo antzeko egiturak indartzera bultzatzen gaitu, eta Jesuiten Boluntario Komunita-

Bederatzi proposamen praktiko

tearen (JBK) esperientzia –agian gaurko egoerara zerbait egokituz– berpizten ahalegintzera.

Gure unibertsitate eta pastoral inguruetan beste «haustura» esperientzia batzuk, ez aurrekoak bezain zorrotzak, susta ditzakegu, etorkizuneko uztak gure usteak gaindi ditzakeela jakinik. JBK, PABOL eta antzekoek dituzten eskakizunetara soilik «*gehiena nabarmendu eta lehiatu nahiko direnak*» sartuko dira. Esperientzia laburrago eta hain selektibo ez diren batzuk eskaintzea –begiratu batean solidaritate itxurako «turismoa» badirudi ere– bizitza aldaketaren eragile eta benetako sines-tun eta, agian, jesuita-hazi ere izan daiteke.

6. BOKAZIO-PASTORALGINTZAN LANKIDETZA «PRIBILEGIATUAK» ZAINDU

«*Gazteak bere bizitza modu serioan hartzeko, benetan, loturarik gabe, Jainkoaren aurrean eta Berari eta munduari Jesusen Lagundia-
ren bidez hitz eman ahal izateko hausnarketak, egintzak eta esperien-
tziak asmatu, sustatu eta eskaintzeko*» zeregin honetan, jesuitok ez gau-
de bakarrik. Familia, gizon-emakume laiko, beste apaiz, lekaime eta
lekaideekin partekatutako gure misio honetatik denok laguntzen dugu
besteek aurki dezaten Jainkoak non «nahi dituen eta amesten» dituen
beraiek. Irekitzen garen laguntza guzti hauek eskertu eta zaintzea, etor-
kizunerako giltzarri garrantzitsua izango da, ez estrategia pragmatiko
modura gure jokamoldearen oinarriko neurri gisa baizik⁸.

7. JESUITA-GUNE «LASAI ETA POZGARRIAK» SORTU

Gure bokazioa, altxorren parabolaren dinamikan –poztasun eta betetasunarenean–, osoki bizi eta, gure ebanjelizatzeko zereginetan, besteei komunikatzen jakitea da dohain gisa egunero eskatzen duguna. Eskari honekin batera, pertsona eta gorputz gisa, gure poztasuna lurpean gelditu ez dadin eta Kristoren misioaren zerbitzuko gorputz izan ordez destajuan lan egiten duten langileen gisa –eta bakarrik– ari ez gaituzten, bitartekotzak bilatzen ditugu. Horretarako, bokazio ikuspegitik esanguratsua iruditzen zaigun bidea iradokitzen dugu: plangintza berrietan, bizitzaren eta misio partekatuaren lekukotza ematen jarrai dezaten, jesuita gazteen sakabanaketa saihestu behar da.

⁸ 34. K.O., 26. txo., 16.

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

8. HEDABIDEETAN ETA, BEREZIKI, INTERNETEN PRESENTE EGOTEA

Gizarteari zerbait esanguratsua eskaini nahi dion edozein talderen gisan hedabideetan presente egon behar dugu. Era horretan, kuriatan langile espezializatuak izateko ekinbideak bultza daitezke.

Interneta nabarmendu nahi genuke, gaur egun duen esanahiagatik eta sarean kalitateko presentzia izateak duen zailtasunagatik. Bitarteko gehiagoz horni daiteke www.jesuitas.es webgunea eta baita berez sortu baina bide interesgarriak irekitzen ari diren beste batzuk ere, www.pastoralsj.org adibidez. Eguneratu, erakargarri eta ezagun egiteak ardua handia eskatzen du lanabes eta langile egokien bidez.

9. BOKAZIOEN ALDEKO PUBLIZITATE KANPAINAK

Ez da alor erraza, baina dagoeneko ahalegin ugari eginak ditugu. Gai horretan hausnartzen jarraitzea eta adin eta testuinguru bakoitzari dagokion material egokia sortzea beharrezkoa da oraindik. Txosten honetan adierazitako zenbait bide aintzat hartu beharko lirateke. Bereziki, hemen eta orain garena eta egiten duguna zer baliotsu gisa aurkezteko eta exotiko eta heroikoari soilik «publizitate» egiteko tentazioan ez erortzeko arreta izan beharko genuke. Zergatik jo kanpoko «eredu» bila, barruan eredurik onenak (egiazkoenak direlako) ditugunean?



ETA HAMARGARRENA: «LEHEN BITARTEKOA ETA NEURRITSUENA» (Konst. 812)

Gure tradizioirik jatorrenak dezakegun guztia jartzera bultzatzen gaitu, baina guztia Jainkoaren baitan dagoela jakinik eta emaitzak ere Berari utziz. Gure bizitzako zenbait alderdi zaindu eta gure garai eta ahalbideen mailako bokazio-pastoralgintza egitea, beharrezko bitarteko eta jarrerak dira. Eta horrela *«eskatzen diguna aurkitzen lagun gaitzala Jaunak, Bere lankide izateko bokazioak guri ematerakoan, eta berori burutzeko borondate eraginkorra eman diezagula»*⁹ eskatzen diogu.




Gure ahaleginarekin batera, ez dugu ahazten bokazioa Jainkoaren dohaina dela eta banaka nahiz komunitatean berori eskatzera gonbidatuak garela. Gure itxaropena ez da, bada, geuregan oinarritzen bere dohainean baizik:

*«Lagundia, gizabidez sortu gabea, haien bidez kontserba eta haz ez daitekeelako, Kristo gure Jainko eta Jaunaren esku ahalsuez bakarrik baizik, Harengan bakarrik itxaron behar da, Hark kontserbatuko duela eta aurrera eramango bere zerbitzu eta gorespenerako eta arimei laguntzeko hasi nahi izan zuena»*¹⁰.

Beragan bakarrik jartzen dugu gure itxaropena: altxor ezkutua aurkitzeko poza, dena saltzeko eta lagun gisa Berari jarraitzeko indarra eman zigun Jesus Jaunarengan. Altxor horixe da eskaintzen duguna eta, gizaki eta hauskor izanik, *«buztinezko ontzian daramagu, garbi ager dadin honenbesteko indarra Jainkoarengandik datorrela eta ez guregandik»* (2 Ko 4, 7).

⁹ Aita Jeneralaren gutuna Lagundi osoari, «Bokazioen sustapenez», 1997eko Irailaren 29an (ikus eranskina).

¹⁰ Konst. 812. Itzulpena, F. Olariaga sj.



ERANSKINA:
AITA JENERALAREN GUTUNA
LAGUNDI OSOARI, «BOKAZIOEN SUSTAPENAZ»,
1997eko IRAILAREN 29an

LAGUNDI OSOARI

Aita eta Anaia adiskideak:

P.C.

34. Kongregazio Nagusiak, Lagundi osoan zehar ditugun esperientzia desberdinak aztertu ondoren (D 10, 4), bokazio-sustapenaren alde praktikoen inguruan gutun bat idazteko gomendioa egin zidan. Loiolan, uztailaren 21etik 25era bitartean izan genuen topaketa, bokazio sustapena eta Jaunak eskatzen diguna bereiztearen inguruan hausnarketa egiteko izan zen. Alor honetan Lagundiaren gaur egungo egoera gehiago eta hobeto ezagutzeko eta era zehatzak bereizteko oso baliagarria gertatu zitzaigun, beroien bidez gure Jaunarekin kolabora dezakegu eta behar dugu Lagundiari bokazioak sustatu ahal izateko.

Loiolako topaketako Ordezkarien txostenen arabera, gaur egun bokazio eskasiaz ardua gehiago dago berauek sustatzeko benetako interesa baino, Lagundian gaur egun, egun osorako 23 sustatzaile bakarrik daude, Probintzia gutxi dira lan-taldeak eta/edo laguntza sareak dituztenak, eta 9tan bakarrik dago bokazio sustapenerako, sustatzaile batek lan-talde baten laguntzaz eta Probintziaburuaren babesean egindako proiektu formalik. Lagundiaz interesa azaltzen dutenei laguntzeko ekintzak leku guztietan egiten badira ere, 22 Probintzian bakarrik dago nobizio-prestaketa gutxi edo gehiago antolaturik. Zenbait tokitan nahasteko edo parekatzeko joera dago nobizio-gaiei emandako laguntza eta bokazio sustapena.

Bokazio sustapenaren zerbitzua Lagundiaren etorkizunean eta Eli-zan eman behar duen zerbitzuaren deirako giltzarria eta erabakitzailea da. Bokazioak Jainkoaren dohaina dira; baina dohain hori, guk beroien sustapen eta bilaketan egindako ahaleginak baldintzatua dago. Ziur nago Jaunak bokazioak bidaltzen dituela, Elizak Lagundiarekin elkarlanean

Lurpetik ateratzeko altxorra... Bokazio-pastoralgintzarako zenbait iradokizun

jarraitzeko borondatea adierazten jarraitzen baitu. Egia da, gazteak giza eta kristau ikuspegitik errealizatzeko aukera gisa bizitza sagaratuaren baliorearen aldeko ez diren «kanpoko» eragileak (kulturazko, familiako, sozial eta eliztarrak) badaudela. Baina aitortu behar dugu, Jaunak aktiboago eta «erasokorrago» izatera deitzen gaituela, graziarekin elkarlanean beharrezko bitarteko eta baliabideak bokazioen sustapenean laguntzeko, San Ignazioren ereduari jarraituz eta Lagundiaren tradizioa geureganatuz. Horregatik eskatzen diet Probintziaburuei, bokazio sustapena gomuta dezatela benetako lehentasun-apostolutza gisa, probintzia mailako apostolutza proiektuetan argi eta garbi adierazirik eta horretan erabil ditzaten behar diren baliabide pertsonal nahiz materialak. Ondoren adieraziko dizkizuet lehentasun hau praktikan jartzeko era zehatz batzuk.

Gazte-pastoralgintza, berriztatua eta ongi antolatua, bokazioak lortzeko estrategia huts gisa har ez badaiteke ere, testuingururik egokiena da bokazioak sustatu eta aurkitzeko. Gogo-jardunak, dei egiten digun Kristorekin norberak topo egiteko esperientzia gisa, pertsonarteko harremana eta espiritu-laguntasuna lehentasunezkoak izango dira gazteekin dugun zerbitzurako. Etorkizuneko Lagundiaren bizitza eta misioa gaur egungo gazteen esku dago. Hala bada, gure baliabideen onena berauekin harremana galdu dugun tokian lortzen erabil dezagula eta indartu eta hobeto antolatzen oraindik daukagunetan.

Baina ez da aski gazte-pastoralgintza. Bokazio sustapen berezia behar da, Lagundiarekin interesaturik dauden nobizio-prestaketa edo laguntza-programetatik desberdina. Probintzia edo herrialde bakoitzak bokazioak sustatzeko eta aurkitzeko gai izango den bokazio-sustatzaile edo eragile bat behar du Buruen benetako laguntza izanez, egun osorako. Eta bokazioen ardura gorputz apostolikoarena denez, sustatzaileak bokazioen interes praktikoa jesuita guztien artean sustatu eta animatu behar du eta egoera bakoitzari egokitzen zaion bokazio sustapen proiektua egin eta, aldez aurretik inolako talde sozial, kultural, herrialde edo fedea bizitzeko eta agertzeko era baztertu gabe, Probintzia edo Herrialdeko komunitate eta apostolutza obrak era desberdinetan nahastuko ditu.

Bokazioak sustatzeko daukagun ahalbide eta erantzukizunaren jakitun guztiok izan behar dugu, gure bokazioa eta misioa era garbian, agerian eta anbiguotasunik gabe, gorputz apostoliko gisa eta ez norbanako apostolu bezala soilik, bizi badugu. Lagundiaren zenbait lekutan, benetan gure bizieran dugun soiltasun gabezia, zin-hitzak bizitzerakoan ditugun inkoherentziak, Hierarkiarekiko hoztasun jarrerak eta Elizaren Irakaspenari buruzko anbiguotasunak, apostolutzarako zaletasun eta sormen eskasia eta elkarte-irekitasun eta abegi gutxi izatea, bokazio urritze dramatikoan eragina izaten ari dira. Jesuita-gaiek ez dute egiaz ez bizitza

Bokazioen sustapenez lagundi osoari

idealik ez gizon-emakume perfekturik bilatzen. Baina, beren erlijio bokazioan otoitz-gizon eta elkarte giroko izateko, Elizaren misioan lan egiteko eta Ignazioren espiritualtasuna onartu eta berotasunez bizitzeko laguntasuna benetan nahi eta behar dute. Horregatik, Jaunak gure elkarre-bizitza eta apostolutza suspertzeko eskatzen digunaren bereizkuntza jarraitza eta, Elizaren gorputz apostoliko gisa, gure Jainkoari eta gure misioari sagaraturiko gizon garden eta ikusgarriak izan gaitezen nire gonbita luzatzen dizuet.

Bokazioak era askotara sustatzen dira otoitzaren bidez, gure karmaren eta misioaren aurkezpen argiaren bidez, gazteekin zenbait apostolutzatan harreman pertsonalak izanez eta Lagundiarekin interesa agertzen dutenei gure obra eta zerbitzuan parte hartzeko gonbita eginez; Lagundiaren berri emanez, bere misio eta santuak, poster, liburu, bideo, irrati, telebista eta internetez emanez. Baina bitarteko hauek berez ez dira nahiko. Pertsonarteko harremana behar da gazteari bokaziorako gonbita egin eta berau pertsona eta kristau harremana gauzatzeko aukera gisa proposatzeko.

Zenbakiarekin itsutu gabe, bokazio-sustatzaileak kalitateko apostolutzarako hautagaiak aurkitu behar ditu, fede sakona, osasuna, oreka, Jainkoaren eta sakramentu bizitzaren esperientzia dutenak; beren bizitzaren, sexualitatearen alde ilunei aurka egin eta onartu dituztenak; Eliza maite eta bere eraberritzean sinesten dutenak; gure apostolutza misioak eskatzen duen heziketa akademikorako adimen gaitasuna dutenak.

Bokazioa batez ere Jaunaren dohaina denez, pertsonalki eta komunitatean bokazioengatik era iraunkor eta egonkorrean otoitz egiteko gonbita egiten dizuet, Lagundiaren tradizioaren arabera.




Gutun honetan jarritakoari jarraipena emateko, Probintziaburuei eskatzen diet beren ex officio gutunetan beren Probintzia edo Lurraldean bokazioak sustatzeko hartu dituzten erabaki eta urratsen berri espre-suki eta zehatz eman diezadatela. Eskatzen diguna aurkitzen lagun gaitzala Jaunak, Bere lankide izateko bokazioak guri ematerakoan, eta berori burutzeko borondate eraginkorra eman diezagula.

Jaunarengan anaikor,

PETER-HANS KOLVENBACH, S.J.




Prepositu Jenerala

Erroman, 1997eko Irailaren 29an



HIZTEGIA

A destajo: Destajuan	Mentira, engaño: Gezurkeria
Carisma: Karisma	Misión: Misio
Centro Universitario: Unibertsitate- ikastetxe	Nostalgia del tiempo: Denbora-min
Clave: Giltzarri	Padre General: Aita Jenerala
Compartir: Partekatu	Pastoral Vocacional: Bokazio-pasto- ralgintza
Comunidad: Komunitate	Plenitud: Betetasun
Considerar: Gomutatu	Post-cristiana: Kristau-osteko
Decididamente: Erabakitasunez	Prepósito General: Prepositu Jenerala
Desenterrar: Lurpetik atera	Proporcionado: Neurritsu
Discernimiento vocacional: Boka- zio-dizernimendua	Provincial: Probintziaburua
Documento marco: Esparru-agiri	Religiosa: Lekaime
Eje transversal: Zehar-ardatza	Religioso: Lekaide
Encuentro: Topaketa	Ruptura: Haustura
Espacios jesuíticos: Jesuita-guneak	Serie: Sail
Específico: Berariazko	Sugerencia: Iradokizun
Experiencias de ruptura: Haustura- esperientziak	Tarea: Zeregin
Genuino: Jator	Tesoro: Altxor
Holgura: Lasaiera	Visibilidad: Ageriko izaera
Inserción laboral: Laneratzte	Visible: Ageriko
Intuir: Sumatu	Vocación: Bokazio
	Voluntariado: Boluntariotza



LABURDURAK

Voluntariado Pedro Arrupe (VOLPA): Pedro Arrupe Boluntariotza (PABOL)

Comunidad de Voluntariado Jesuita (CVJ): Jesuiten Boluntario Komunitatea (JBK)

Retos y fines de la pastoral juvenil ignaciana (RFPJI): Gazteriari buruzko inazioren pastoralaren erronka eta helburuak (GBIPEH).

